


# Musikak eragiten dituen emozioen mapa

Ana Galarraga Aiestaran · Elhuyar Zientzia

Txinako eta AEBko entzule boluntarioekin eginda ikerketa baten bidez, musikak eragiten dituen emozioak identifikatu, sailkatu, eta elkarren arteko harremanak erakusten dituen mapa bat osatu dute. Aldi berean, berretsi dute musika entzuteak eragiten duen esperientzia subjektiboa dela eta kulturaren eraginpekoa.

[Kaliforniako Unibertsitatean egin dute ikerketa](#), eta Txinako eta AEBko 2.500 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute. Askotariko estilotako musika entzun dute, hala nola rocka, jazza, klasikoa, heavya, folckea, baita Txinako musika tradizionala ere. Musika horiek entzutean sentitutako emozioak hamahiru kategoriatan sailka daitezkeela ikusi dute



Musikak eragindako emozioen mapa interaktiboa. ARG.: Kaliforniako Unibertsitatea.

---

ikertzaileek: jostaketa, poza, desira, edertasuna, baretasuna, tristezia, ametsa, garaipena, antsietatea, beldurra, ondoeza, erronka eta kitzikapena.

Emozioa identifikatzeaz gain, entzuleek positibotzat ala negatibotzat jotzen ote zituzten ere galdetu zieten, baita emozioa apala ala indartsua ote zen. Emozioen kategoriak eta mailaketak aintzat hartuta, [mapa interaktiboa osatu dute ikertzaileek](#).

Mapak piramide trakets baten antza du. Goiko erpinean eta elkarrengandik oso gertu agertzen dira edertasuna eta baretasuna. Edertasunetik beherantz zabaltzen dira, hurrenez hurren, desira, jostaketa, poza eta kitzikapena. Beste aldean, baretasunetik beherantz, daude tristezia, ametsa eta garaipena. Eta oinarrian, kitzikapena eta garaipenaren artean, erronka, ondoeza, beldurra eta antsietatea. Haien guztien artean dauden erlazioak marren bidez agertzen dira, eta, tartean, 2.000 musika-tarte baino gehiago daude entzungai. Haietako bakoitzerako, emozio bakoitzetik zein ehuneko duen azaltzen da, emozioak ez baitira puruak, mailakatuak eta nahasiak baizik.

Kulturaren eragina mailakatzean nabaritzen da bereziki, eta ez horrenbeste emozioen kategorietan. Psycho filmaren soinu-bandak beldurra eragin zien bai txinatarrei bai estatubatuarrei. Beste pieza batzuetan ere emozio berdinak adierazi zituzten, poza edo ondoeza, esaterako. Aldiz, batzuek positibotzat

hartzen zutena besteek negatibotzat jotzen zuten, eta gauza bera gertatzen zen apala ala indartsua iruditzen zitzaizen azaltzean.

*“Kulturaren eragina mailakatzean nabaritzen da bereziki, eta ez horrenbeste emozioen kategorietan”*

[Beste ikertzaile batzuek ohartarazi dute](#) emozioak izendatzeko erabilitako hitzek eragina izan zezaketa boluntarioen erantzunetan, eta hori ez dutela kontuan hartu. Horregatik, musika, sorrarazten duen emozioarekin lotu beharrean, emozio horiek adierazteko erabiltzen ditugun hitzekin lotzea zuzenagoa litzatekeela proposatzen dute.

Gainerakoan, onartu dute Kaliforniako Unibertsitatean egindako lana osatua eta baliagarria dela. Hain zuzen, egileen esanean, ikerketa erabilgarria izan daiteke emozioak eta haien inguruko asaldurak hobeto ulertzeko. ●